

JEIKI HADI MUTIL

JEIKI HADI MUTIL, JEIKI HADI MUTIL
EDERRA ARI DU, EPERRAK ARI DU,
JEIKI HADI MUTIL, JEIKI HADI MUTIL
IKASTOLAN DENOK ONGI GAITUK.

AURRERA MUTILAK! AUPA AUPA NESKAK!
EGUNSENTIA DUK (BIS)

EURIA GOI TA BEHE, EURIA GOI TA BEHE
DENOK BUSTI-BUSTI, DENOK BUSTI-BUSTI
EURIA GOI TA BEHE, EURIA GOI TA BEHE
IKASTOLAN DENOK ONGI GAITUK.

AURRERA MUTILAK! AUPA AUPA NESKAK!
EGUNSENTIA DUK (BIS)

HAIZEA ADARRETAN, HAIZEA ADARRETAN
DENOK ARIN-ARIN, DENOK ARIN-ARIN
HAIZEA ADARRETAN, HAIZEA ADARRETAN
IKASTOLAN DENOK ONGI GAITUK.

AURRERA MUTILAK! AUPA AUPA NESKAK!
EGUNSENTIA DUK (BIS)

ELURRA MENDIAN, ELURRA MENDIAN
DENON TXURI TXURI, DENOK TXURI TXURI
ELURRA MENDIAN, ELURRA MENDIAN
IKASTOLAN DENOK ONGI GAITUK.

AURRERA MUTILAK! AUPA AUPA NESKAK!
EGUNSENTIA DUK (BIS)

GAZTAINAK ZINTZILIK, GAZTAINAK ZINTZILIK
DENOK GOSE-GOSE, DENOK GOSE-GOSE
GAZTAINAK ZINTZILIK, GAZTAINAK ZINTZILIK
IKASTOLAN DENOK ONGI GAITUK.

AURRERA MUTILAK! AUPA AUPA NESKAK!
EGUNSENTIA DUK (BIS)